


10/09/2020

Aiherra



Ezkerretik: Lanouguere Julen, Hontas Pette (ordezkoa), Sallaberrenborde Txomin, Echevertz Mattin eta Duhalde Xalbat

Xalbat Duhalde eta Mattin Echevertz txapeldun

Xalbat Duhalde eta Mattin Echevertz herritarrak berriz ere Frantziako txapeldun ditugu, esku huska gaztetxoan mailan. Donaitiko plazan joan den astelehen arratsaldean Pette Hontas (hau Julen Lanouguerearen ordeza) eta Txomin Sallaberrenborde xiberotarrak garaitu zituzten, 30 eta 19 nagusituz Mauleko ekipari.

Biba zuek eta aupa ABARRATIA pilota batasuna!!

Mattin Durruty eta Xabi Harguindeguy finalean

Abarratia pilota batasuna lorientan dugu, Mattin Durruty eta Xabi Harguindeguy Frantziako txapelketaren kondu, plaza laxoan finalera hupatu baitira. Joan den larunbat arratsaldean, Hazparneko plazan, Denek Bateko Remi Darguy eta Clément Erguy 30 eta 15 garaitu zituzten. Heldu den igandean, Donapaleuko plazan, finalean, Itsasuko Xabi Carricart eta Estebe Parachu parean ukanen dituzte. Final hau arratsaldeko 3ak e'terdietan hasiko da, lehen mailako finala aitzin. Xantza on Mattin eta Xabi!